

FUNTSEZKO JARDUERAK

APLIKAZIOA LAU AZPIATALETAN BANATUTA EGONGO DA;



1

IKASKETEN ATALA:

Maila eta arlo desberdinetako **apunteak** egongo dira eskuragarri edozein ikaslerentzat.

Ikasleek beren lanak partekatzeko aukera izango dute, argazkiak igoz, elkarrekin hitz eginez... Aplikazioaren atal hau, nolabaiteko **sare soziala** izango da, izan ere erabiltzaileek **egunero** argazkiak igo edota momentu bakoitzean zer ikasten ari diren adierazteko aukera izango dute. Horrela, zalantzaren bat edo informazio gehigarriaren bat behar izanez gero lanarekin aurrera jarraitzeko, gainerako **erabiltzaileekin komunikatzeko** aukera izango dute.

Atal honen helburu nagusia gazteak ikasten dauden bitartean ikasi beharrekoa hain astuna ez izatea da, baita ikasten ari direnaren inguruan benetako interesa piztea.



2

MODAKO ATALA:

Armairu digital itxurako batean, bezeroaren arropa guztiak ageriko dira. Bezeroek sarritan arropak aukeratzeko izaten dituzten zailtasunak sahiestu nahian, armairu digitala bera arduratuko da arropak aukeratzeaz. Betiere **eguraldia** kontuan izanik, hots, **WIXU**k jantzi-konbinazio desberdinak egingo ditu tenperaturaren arabera. Gainera, erabiltzaileek gustukoak dituzten **jantzi-konbinazioak** gordetzeko aukera emango du.



FUNTSEZKO JARDUERAK



3

SALEROSKETA ATALA:

Gazteek behar ez duten ondasunak saltzeko aukera izango dute, baita behar duten produktuak erosteko ere. **Bigarren eskuko merkatu** honetan, gazteen aurrekontu murriztuaz jabetuta, hauek produktuak **merkeago** eskuratzeko era berri bat sortu nahi dugu.

Horretarako, zenbait enpresekin **elkarlanean** arituko gara, gure aplikazioaren bitartez beren **Stock**-ak saltzeko prozesuan lagunduko diegu, produktu merkeagoak eskainiz. Gainera, dirua bitartekari ez den azpiatal bat izango du, saldu edota erosi nahi ez dutenentzat trukaketa-atal bat egongo da, irakurketa liburuak edota aldizkari interesgarriak elkartrukatzeko.



RECOMMEND

4

GOMENDIOEN ATALA:

Erabiltzaileen **aisialdialdirako** zuzenduta egongo da laugarren atala. Baina, gazteak gehiegi entretenitzea sahiesteko, atal hau asteko **hiru egunetan** egongo da erabilgarri, ostiraletik igandera hain zuzen. Astero, ostiraletan **gomendio** berriak azalera tuko ditu atal honek. Esaterako, filmak, telebista serieak, janari osasuntzuen errezeta berriak, albiste interesgarriak eta aste horretako kantu entzunenak besteak beste.

